

563/2018 Ebazpena, 2018ko ekainaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, 5. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak argitaratzeko agintzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak 2011ko uztailaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, 1282/2011 zenbakiduna (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27koa), onartu egin ziren 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak; horietan ezarritakoaren arabera eskuratzekoa zen lotura estatutario finkoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

Apirilaren 11ko 309/2018 Ebazpenaren bidez, 5. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin behineko zerrendak argitaratu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,


EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 5. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean argitaratzeko agintzea, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

2018ko ekainaren 20an indarrean sartuko dira zerrenda hauek.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendariari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 8an.



Juan Carlos Soto Pérez
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS
Iz.: Juan Carlos Soto Pérez

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD